

[Eusk/Cast] Mugitu! ante la ratificación de condena de 2 años a los "tartalaris"

MUGITU! :: 03/11/2014

Nota de prensa de Mugitu! ante la ratificación del Tribunal Supremo de las condenas a 2 años de cárcel a los acusados de dar el "TAVtazo" a Yolanda Barcina

[Euskara]

Auzitegi Goren espanyiarak Barcina tartakatzeagatik epaituriko lau pertsonen aurkako epaia berretsi eta gero, Mugitu! Mugimenduak, hauxe adierazi nahi du:

1.- Kondena hau erabat neurrigabea dela salatzen dugu. Munduan barna tartakatze politikoa erabiltzeagatik inoiz jaso den kartzela zigor handiena dela salatu nahi dugu. Ez da ezagutzen salaketa politiko hau erabiltzeagatik (toki batzuetan erruz erabiltzen dutena) hilabeteren bat baino gehiagoko zigorrik jaso duen tartalaririk.

2.- Barcinaren porrota. Nafarroako Foru Erkidegoko Lehendakari, Yolanda Barcina Angulok, AHTren aurkarien kartzelatzea bilatu zuen obsesiboki, eska zitezkeen kartzela zigor handienak eskatuz (9 urte Gorkarendako eta 6na urte Julio, Ibon eta Mikelendako). Kartzela saihestu eta AHTren aurkako borrokan jarraitu ahal izatea Barcina anderearen porrot garbia dira.

3.- Zigorren mantentzeak epaia politikoa dela berresten du. Iazko abenduan adierazi genuen bezala, epaketa politiko baten aurrean gaude.

Ondorioz, zigorra ere politikoa dela salatzen dugu. Orduan bezalaxe, tartalariak zigortzeko asmoa dago, baina era berean, hauen kartzelatzea saihestu nahi dute, tartakada batzuengatik jendea kartzelatzea eskandalu hutsa bailitzateke.

4.- AHTren aurka borrokan jarraitzeko konpromisoa. Ezin ahantzi hau guztia, AHTren aurkako borrokaren baitan gertaturikoa dela. Hori dela eta, tartalariek AHTren aurkako borrokan tinko jarraitzearen aldeko konpromisoa aldarrakatzen dute.

Mugitu! Mugimenduak, era berean, euskal jendartea azpiegitura suntsitzaile, diru xahutzaile eta ustel honen aurka borrokan jarraitzera hots egiten du.

Mugitu! Mugimendua

[Castellano]

Ante la sentencia del Tribunal Supremo español que ratifica las condenas a los enjuiciados por entartar a Barcina, el Movimiento Mugitu! quiere manifestar lo siguiente:

1.- Denunciamos que esta condena es totalmente desproporcionada. Queremos

denunciar que esta condena es la pena de cárcel más alta jamás dada contra la utilización del entartamiento político en todo el mundo (y en algunos sitios su utilización es muy grande).

2.- El fracaso de Barcina. La *Lehendakari* de la Comunidad Foral de Navarra, Yolanda Barcina Angulo, buscó obsesivamente el encarcelamiento de los opositores al TAV, pidiendo el máximo de penas de cárcel que podía pedir (9 años para Gorka y a cada 6 para Julio, Ibon y Mikel). El haber evitado la cárcel y poder seguir en la lucha contra el TAV son un claro ejemplo del fracaso de la señora Barcina.

3.- El mantenimiento de las condenas ratifica el carácter político de éstas. Como ya afirmamos en Diciembre pasado, estamos ante un juicio político. Por lo tanto, denunciamos que la condena también es política. Como entonces, existe un ánimo de condenar a los tartalaris, pero al mismo tiempo, se quiere evitar que entren en la cárcel, ya que sería un auténtico escándalo encarcelar a alguien por unos entartamientos.

4.- El compromiso para continuar en la lucha contra el TAV. No podemos olvidar que todo esto, ocurre dentro de la lucha en contra del TAV.

Por ello, los tartalaris reivindican su firme compromiso para seguir en la lucha en contra del TAV.

El Movimiento Mugitu! Asimismo, llama a la sociedad vasca a seguir en la lucha contra esta infraestructura destructora, despilfarradora y corrupta.

Mugitu! Mugimendua

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-mugitu-ante-la>